

**Sail Egitarau Txostena - GASTUAK**  
**Memoria Departamento Programa - GASTOS**

| SAILA / DEPARTAMENTO              | ATALA / SECCIÓN                   | FUNTZIONALA / FUNCIONAL  |
|-----------------------------------|-----------------------------------|--|
| 04. Kultura<br>04. <i>Cultura</i> | 06. Euskara<br>06. <i>Euskara</i> | 450.103 Euskararen Sustapena<br>450.103 <i>Promoción del Euskara</i> |

Euskararen sustapenaren egitarauari dagokionez, hainbat eginkizun moldatzen jarraituko dugu euskararen sustapenaren eretzean, zeren arabera eta EUSTATEk argitaratutako azken mapa soziolinguistikoaren errealitatearen arabera. Ikuspegi horretatik, lehenetsua izango dute euskara belaunetik belaunera igaroarazteko egiten diren jarduerak eta gizarte erabilerara jotzen dutenak. Zehatz-mehatz, hauek izango dira lehenetsua izango dutenak:

- Bizkaiko euskarak berebiziko garrantzia izango du gure jardunean orain arte gertatu den legez; batez ere, haren erabilera sakatuko dugu Lurralde Historikoko jardura guztietan, bai eta haren estandarizazio orokorra ere.
- Beste alde batetik, enpresen munduari eragingo zaio, laguntzak bideratuko direla euskara informazio eta komunikazio teknologietara dakarten ekoizkinean arloa bultzatzeko.
- Euskararen sustapenean udalak eta mankomunitateak dira herritarren zerbitzu-emaile hurkoenak; horretara bada, arreta berezia izango dute gure aldetik, bakoitzak bere eremuan Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia onetsi eta gauzatzen duenean. Beste alde batetik, Alkarbide, aurrerantzean ere, Bizkaiko euskara zerbitzuen bilgunea, osagai giltzarria izango da Bizkaiko Lurralde Historikoan, eta 2013ko ekitaldian gehitu egingo dira euskararen eragintzan diharduten langileei eskaintzen zaizkien prestazioak, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak ezarritako helburuak erdiesteko bidean eragingarritasun eta koordinazio handiagoekin jardun ahal izateko.
- Bizkaian euskaraz argitaratzen diren herri aldizkariak sustatzeko politikak, 2013ko ekitaldian zehar, finkatu egingo ditu arlo honetako egiturak, hauek hiritarren hurreneko ingurumariari eragiten badiote, eta eurak argi eta garbi bereiziko dira gizarte-hedabide orokorretatik.

En el área de la promoción del euskera se seguirán adecuando las acciones expresamente dirigidas a la promoción del euskera, de acuerdo con la realidad marcada por el último mapa sociolingüístico publicado por el EUSTAT. En este sentido, se tomarán como prioridad las actividades encaminadas a la transmisión intergeneracional del euskera y las focalizadas en su uso social. Concretamente, estas serán prioritarias:

- El euskara vizcaíno tendrá un lugar preferente, como hasta ahora, e incidiremos, sobre todo, en su uso en todas las actividades del Territorio Histórico, así como en su estandarización global.
- Por otro lado, se incidirá en el mundo empresarial, articulando ayudas para potenciar el sector de productos que incorporen el euskera a las tecnologías de la información y comunicación.
- Las entidades municipales y las mancomunidades, en la promoción del euskera, como entidades más cercanas a la ciudadanía, serán atendidas en la medida que ellas vayan aprobando y ejecutando el Plan General de Promoción del Euskara en sus demarcaciones territoriales. Alkarbide seguirá siendo el eje referencial de esta política en el Territorio Histórico de Bizkaia, incrementando durante 2013 las distintas prestaciones que se ofrecen al personal dedicado a las tareas de dinamización del euskera, para poder avanzar de una manera más eficaz y coordinada en la consecución de los objetivos establecidos en el Plan General de Promoción del Uso del Euskara.
- La política de promoción de las publicaciones periódicas que se editan en euskera en Bizkaia durante el ejercicio 2013 asentará las estructuras de este campo que incidan en el entorno más cercano a la ciudadanía, diferenciándolas claramente de los medios de comunicación social general.

## Sail Egitarau Txostena - GASTUAK Memoria Departamento Programa - GASTOS

| SAILA / DEPARTAMENTO              | ATALA / SECCIÓN                   | FUNTZIONALA / FUNCIONAL  |
|-----------------------------------|-----------------------------------|--|
| 04. Kultura<br>04. <i>Cultura</i> | 06. Euskara<br>06. <i>Euskara</i> | 450.103 Euskararen Sustapena<br>450.103 <i>Promoción del Euskara</i> |

- Euskararen arloan diharduten elkarteek ere Euskara Sustatzeko Zuzendaritza Nagusiaren ohiko laguntza izango dute, betiere, kontuan hartuko dira, bereziki, elkarte horiek gizartearen neurria eta hari daragioten ondorena, oro har, eta arreta berezia behar duten taldeei daragietena, modu berezian.
- Arreta berezia ezarriko zaio euskara astialdian erabiltzeari, bai eta olgetako gainerako esparruetan ere. Hori ez ezik, laguntza emango da, jarduera horietan begirale euskaldun euskaldunak prestatzeko, eta materialok laguntasuna ematen badute pertsona horiek hobeto prestatzen. Halaber, umeen eta gazteen irakurtzaletasuna beren-beregi bultzatzen ahaleginduko gara.
- Funtsezkotzat jotzen dugu, halaber, Bizkaiko Lurralde Historikoan euskararen arloan estrategikoak diren azpiegituren sendotzea ere; esparru honetan, aipatzekoa da Labayru Ikastegiarekin sinaturiko hitzarmenak 2013an izango duen ondorena. Era berean, jarraituko dugu laguntza ematen Euskaltzaindiari, Euskal Herriko Unibertsitateari, Deustuko Unibertsitateari eta Udako Euskal Unibertsitateari.
- Las asociaciones que trabajan en el ámbito del euskara seguirán contando con la colaboración de la Dirección General de Euskera, teniendo en cuenta, sobre todo, su dimensión y efecto en la sociedad, en general, y en los colectivos que necesitan una atención especial, en particular.
- Se pondrá especial atención a la utilización del euskara en el tiempo libre y en el resto de ámbitos lúdicos. Además, se favorecerá la formación de monitores vasco parlantes en dichas actividades, y se atenderá la creación de materiales que coadyuven a la mejor formación de estas personas. También se incidirá especialmente en la potenciación del hábito de la lectura de la infancia y la juventud.
- Otro aspecto fundamental será el fortalecimiento de las infraestructuras estratégicas del euskara en el Territorio Histórico de Bizkaia; en este sentido, cabe mencionar el efecto que tendrá durante el ejercicio 2013 el convenio suscrito con el Instituto Estanislao de Labayru. Así mismo, se seguirá apoyando a Euskaltzaindia y a la Universidad del País Vasco, a la Universidad de Deusto y a la Universidad Vasca de Verano.

Azkenik, Bizkaiko Foru Aldundiak eutsi egingo dio Euskaltzaindiarekin, Euskal Herriko Unibertsitatearekin, Bilboko Udalarekin eta Deustuko Unibertsitatearekin batera eratu zuen Azkue Fundazioa bultzatzeko ahaleginari. Azkue Fundazioaren funtsezko xedea hau da: euskararen erabilera sustatzea, herritarrei euskarari buruzko oinarriko edukiak eskaintzea, eta modu interesgarri, atsegin eta zuzenean lantzea euskarak integratzeko duen balioa, hizkuntza horretako gertakizunik garrantzitsuenak, euskalkien aberastasuna, etab. Horretarako, punta-puntako teknologiak erabiliko dira beti.

Por último, la Diputación Foral de Bizkaia seguirá potenciando la fundación Azkue Fundazioa que constituyó junto con Euskaltzaindia, la Universidad del País Vasco, el Ayuntamiento de Bilbao y la Universidad de Deusto. La fundación Azkue Fundazioa tiene por objeto fundamental fomentar el uso del euskera, ofrecer a la ciudadanía contenidos básicos sobre el euskera, así como trabajar de un modo interesante, divertido y directo el valor integrador del euskera, los acontecimientos más importantes de la historia de dicha lengua, la riqueza de sus dialectos, etc., todo ello utilizando tecnologías punta.